KALTEA LEPOAN BIZARRA DAGIANAIK

# Artekale

Nº 4. 1 de Marzo de 1988

4.zenb. 1988.ko Martxoan 1ekoa



## "Gernika Gogoratuz": exposición-homenaje a esta villa vasca

# "RECORDAR, MEDITAR, QUERER ... GERNIKA"

**"Gernika gogoratuz" herriz herriko erakusketa Algortako Salsidu Etorbidean Lankide Aurrezki Kutxak duen erakustaretoan agerian egongo da Martxoaren 1az geroztik.**

**"Gernika gogoratuz", agerkaiak eta argazkiak eta kartelak eta irazkinak, euskaraz eta gaztelaniaz, direla medio, Gernikako bizitza 1937.eko Apirilean, bonbaketaren aurrean, artean eta ondoan nolakoa zen erakusle dugu.**

**Hiru talde bereburuk burutan atera izan dute honako erakusketa hau: bata, "Gernika-zaharra" deritzana, Gernika hiriko bereko irakaslari eta historialari taldea; bigarrena, Gerra Atomikoaren Prebentziorako Medikuak, 1985.eko Bakearen Novel Saria jadetsitakoa; eta hirugarrena, Donostiako Desarmapenerako Forum. Bada, "Gernika gogoratuz" agiritegietan eta argazki bildumetan, gai honi buruzko idazlanetan eta halaber, zenbait inkestataz baliaturik egindako ikerlanaren emari dugu.**

En la sala de exposiciones de la Caja de Ahorros Laboral Popular de la Avda. Salsidu en Algorta se expondrá a partir del 1 de marzo y durante toda la quincena, la exposición itinerante "Gernika Gogoratuz" sobre el bombardeo de la villa de Gernika el 26 de abril de 1937.

Esta muestra fue realizada por tres grupos independientes: "Gernika-zaharra", colectivo de enseñantes e historiadores de la misma villa de Gernika; la sección de Bilbao de la Asociación de Médicos para la Prevención de la Guerra Nuclear, que obtuvo el premio Nobel por la Paz en 1985 y el Foro por el Desarme de Donostia.

El equipo formado entre estos tres grupos para realizar "Gernika Gogoratuz" investigó en más de veinte archivos documentales y fotográficos, trabajó la literatura disponible sobre el tema e hizo uso de varias encuestas realizadas por miembros de "Gernika-zaharra" entre la población de Gernika.

**Recordando Gernika**

La exposición "Gernika Gogoratuz"; nombre elegido por su propia significación "recordando, haciendo propia y queriendo Gernika" (la raíz "gogo" en euskera significa "recordar, reflexionar y tener ganas") se compone casi exclusivamente de reproducciones en blanco y negro —sobre papel en tono sepia— de fotos, planos, documentos, declaraciones y comentarios dispuestos sobre paneles, con textos explicativos en euskera y castellano.

"Gernika Gogoratuz" está dividida en catorce bloques que hacen referencia a diferentes aspectos y etapas de la vida de Gernika antes y después del bombardeo.

El primero de ellos presenta el pasado de Gernika, con referencias al valle de Mundaka, al significado del Arbol de Gernika y en general a la vida en Gernika antes de la guerra: su industria, mercado, etc.

El segundo panel resume los acontecimientos históricos que tuvieron lugar desde el alzamiento fascista de Franco y Mola hasta que ya en plena guerra Hitler envía a España, en ayuda de Franco, aviones, pilotos y mecánicos —la Legión Condor—. Documentos de identidad, pasaportes, telegramas etc, conforman el tercer panel de esta exposición. Los cuatro siguientes ilustran los días antes del bombardeo, el vuelo de la Legión Condor hacia Gernika y los momentos vividos por esta ciudad el 26 de abril de 1937 desde las 16,30 hasta las 19,30 h., así como los objetivos del ataque.

El antes y después de esta villa se muestran en el octavo panel.

Se exponen aquí parejas de fotos del mismo edificio antes y después del bombardeo.

La insuficiente protección de la ciudad y el sufrimiento y la destrucción de la vida se presentan a continuación. En este último aparecen declaraciones de sobrevivientes y fotos de las víctimas. Además al no haber, lógicamente, fotografías del impacto del bombardeo, se ha incorporado a este bloque una serie de dibujos hechos en Barcelona por niños refugiados de guerra en 1938 sobre el tema "Lo que he visto en la guerra". Casi todos los dibujos se refieren a bombardeos de la población civil.

"Gernika Gogoratuz" incluye también documentos gráficos sobre la falsificación de la destrucción de la villa dados por el gobierno: fotografías, informes, declaraciones, etc.

Gernika, ciudad de paz, Gernika vista por Picasso y carteles conmemorativos del cincuenta aniversario componen el resto de esta exposición que pretende ser un homenaje itinerante.

## 3. Mus Txapelketa iragartzeko kartelen erakusketa

# EUSKO JAURLARITZATIK ETA UDALETIK ORDEZKARIAK "ARTE JOVEN 87" INAUGURAZIORA ETORRI

Otsailaren 16an "Arte joven" erakusketa ofizialki zabaldu izan da, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte-Ekintza Sailak antolatu izan duen "Euskadi 87" 2. Gazte Sariketan saristaturiko lanak barne daudela.

Inaugurazioa arratseko azken orduan egin zen eta bertara Eusko Jaurlaritzako ordezkari zenbait, Javier Sarria Getxoko Alkatea, udal ordezkariak, Jose Mari Azkorra Kultur Etxeko lehendakaria eta Eugenio Gandiaga Kultur Etxeko zuzendaria etorri ziren.

Honako erakusketa hau Martxoaren 5era arte egongo da zabalik. Badira bertan berrogeitazortzi lan, marrazki, grabatu, pintura, eskultura, komiki eta argazki, alegia, eta egileak hamabost eta hogeitamar urteren bitarteko adinetan daude. Erakusketaren ibilkorra gogotan edukirik, euskal herrietan gaindi ibiliko da.

"Euskadi 87" Sariketa autonomi elkartearen barnean egiten da lehenik, gero estatu barneko sariketara iragan ahal izateko. Plastika motan saridun gertatutako lanak Valentziara irailekoan egiteko den estatu barneko sariketara joango dira eta argazki-lanak aldiz, Madrilera, hango lehiaketa nazionalera.

Erakusketa hau bukatzerakoan, Getxoko Merkatarien Elkarteak antolaturik 3. Mus Txapelketa Iragartzeko kartelen erakusketari emango zaio hasiera. Martxoaren 7tik 12ra bitarteko egunetan egongo da jendeari zabalik eta bertan mus txapelketako kartel iragarlea hautatzekotzat lehiaketan sartutako kartel guziak jarriko dira agerian.

Kartelak, 50 × 70 cm, mus txapelketaren agergarri dira eta Getxoko zenbait tokiri datxezkienak, euskarri gogorraren gainean eta zernahi teknikataz eginak.